

-PRENTSA OHARRA-

EH BILDUK 25 PROPOSAMEN ZEHATZ AURKEZTU DIZKIO PASAIAKO 2021eko UDAL AURREKONTUARI

- Ohiz kanpoko testuinguruan gaudela kontutan hartuta, EH Bilduk ez du osoko emendakinik aurkeztu alderdi guztien arteko akordio zabaletara iristeko helburuarekin.
- EH Bilduk guztion ahalegina indartu eta udalaren esku-hartzetik herritarren bizitzak hobetzeari begira lan egiteko eskatu dio udal gobernari.

Datorren urteko udal aurrekontua COVID-19ak eragindako krisi handi baten atarian kokatzen da, mota askotariko krisia: soziala, ekonomikoa, zaintzarekin lotutakoa, gizarte-zerbitzuena... Pasaian dagoeneko jende askok jasaten zuen krisia, eta egoera honek hori okertu besterik ez du egin. Horregatik, udal ekimenak inoiz baino sendoagoa behar du izan eta jarduera politikoa herritarren kezka eta premiekin erabat lotuta behar du egon.

Horregatik guztiagatik, EH Bilduk hurrengo proposamen zehatzak egin ditu datorren urteko udal aurrekontuarekin lotuta:

1. Bertako txikizko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuei laguntzeko talka-plana abian jartzea (diru-laguntza zuzenak, bono kanpainak, negozio berriak irekitzeko diru-laguntzak, paisaia plana...).
2. Udalak segurtasunez egin daitezkeen ekintza eta programa guztiak mantentzeko eta handitzeko ahalegina egin dezala (ekintza kulturalak, herriko elkarteekin lotutakoak, kirolari dagozkionak...).
3. Pasaia etxebizitza udal plana garatzea (etxe hutsen diagnostiko eguneratua, udal-errola publikoa, etxeetan efizientzia energetikoa eta irisgarritasunarekin lotutako obrak egiteko diru-laguntzak, alokairu publikoaren merkaturua dinamizatzea...).
4. Bizikidetzaren eta segurtasunarekin lotutako ekintza-plana garatu eta burutzea.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzia gutxiagokoa, EH Bilduk alderdi politiko guztion arteko akordio zabalak egikaritzea proposatu du, Pasaia-arentzat egiturazkoak diren gaietan eta proiektuetan. Horien artean, portu-hiri bizikidetzari dagokiona, Antxoko Topoaren lurrazpiratzeari eta horrekin lotuta doan eraikin soziokulturalaren kokapena erabakitzearen ingurukoa, AdinBerri erresidentzia berriari eta Hospitalilloko parkingari dagozkionak, Donibaneko saneamenduari dagokiona edota Antxok behingoz anbulategi definitibo bat izan dezan eskatzen duen akordioa.

Laburbilduz, hau da EH Bilduk proposatu duena: **udalaren kudeaketa zorrotzaz ahalmen guztiak aktibatzea eta ahalik eta errekurso gehien bideratzea egoera larri honetan inor atzean gera ez dadin, eta honekin batera, denon artean Pasaia behar-beharrezkoak dituen proiektuak denon artean eta ahots bakarrarekin defendatzea.**

Pasaian, 2020ko abenduaren 7an

-NOTA DE PRENSA-

EH BILDU HA PRESENTADO 25 PROPUESTAS CONCRETAS AL PRESUPUESTO DE PASAIA PARA 2021

- Teniendo en cuenta que la excepcionalidad de la situación, EH Bildu ha descartado presentar una enmienda a la totalidad con el objetivo de poder llegar a consensos amplios entre todos los partidos.
- EH Bildu ha solicitado al gobierno municipal que redoble el esfuerzo y trabajo de cara a mejorar las vidas de la ciudadanía desde la intervención municipal.

El presupuesto municipal del año que viene se sitúa a las puertas de una gran crisis provocada por el COVID-19, una crisis social, económica, de cuidados, de servicios sociales..., que ya venía sufriendo mucha gente en Pasaia y ahora se ha visto acentuada. Por ello, la iniciativa municipal debe ser más fuerte que nunca y la actividad política debe estar totalmente ligada a las preocupaciones y necesidades de la ciudadanía.

Por todo ello, EH Bildu ha realizado las siguientes propuestas concretas en relación con el presupuesto municipal del próximo año:

1. Puesta en marcha de un plan de choque para apoyar el comercio minorista, la hostelería y los servicios locales (subvenciones directas, campañas de bonos, ayudas para la apertura de nuevos negocios, un plan de paisaje...).
2. Aumentar el esfuerzo del Ayuntamiento para mantener e incrementar todas las actividades y programas que se puedan realizar con seguridad (actividad cultural, asociativa, deportiva...).
3. Desarrollo de un plan municipal de vivienda (diagnóstico actualizado de las viviendas vacías, padrón público municipal, subvenciones para la realización de obras relacionadas con la eficiencia energética y accesibilidad en los hogares, dinamización del mercado de alquiler público...).
4. Desarrollo y ejecución de un plan de acción en materia de convivencia y seguridad.

Por último, pero no menos importante, EH Bildu ha propuesto materializar acuerdos amplios entre todos los partidos políticos en materias y proyectos estructurales para Pasaia como pueden ser la relación puerto-ciudad, el soterramiento del Topo a su paso por Antxo y la ubicación del nuevo centro sociocultural del distrito, la nueva residencia AdinBerri y el parking del Hospitalillo, el saneamiento de Donibane y la necesidad de tener cuanto antes un ambulatorio definitivo en Antxo.

Resumiendo, lo que EH Bildu propone es que **con una gestión rigurosa del Ayuntamiento se activen todas las facultades y se canalicen todos los recursos posibles para que nadie se quede atrás en esta grave situación y defendamos entre todos con una única voz los proyectos que Pasaia tanto necesita.**

Pasaian, 2020ko abenduaren 7a